



### 3 UDALA Ekonomia, hezkuntza eta eraso sexisten gaitzestea

Asteartean, ohiko Udalbatzara izan zen. Honetan 2013 urteko ekitaldiari amaiera emateko kontu ekonomikoan azalpena egin zen. Bestalde, Landaberri-Garaikoetxea ikastolan jangela eraikitzeke xehetasuneko azterketa onartu zen eta aste hauetan herrian izan dziren eraso sexisten aurkako mozioa aurkeztu zuten alderdi guztiek batera. Gaur, Udalbatzarrak 2014 urteko aurrekontuak aztertuko ditu.

### 4-5 BURUNTZALDEA Famili transmisioa hizkuntzaren garapenerako

Euskararen ezagutzak gora egin du Buruntzaldeko herrietan azken 20 urteotan. Baina etxeetan ez da hori antzematen. Josu Zubillaga Langile Ikastolako psikologo eta aholkulariarekin familia transmisioari buruz mintzatu gara. Bere esperientzia oinarrituta, famulietan izandako aldaketan eta balore transmisioen inguruan hausnartu du.



## Emakumeen borroka Palestinan

Khitam Sa'afin Palestinako emakume mugimenduko kidea herrian

Khitam Sa'afin Palestinako Emakumeen Lantaldeen Batasuneko zuzendaria izan zen astelehenean Lasarte-Orian. Udal Gobernuarekin bildu eta hitzaldia ere eskaini zuten Villa Mirentxun.

Mundu Bat GKE-k Khitam Sa'afin Palestinako Emakumeen Lantaldeen Batasuneko zuzendaria Gipuzkoan Palestinako egoeraz hainbat hitzaldi eskaintzera gonbidatu du. Horregatik, astelehenean gure herrian izan zen.

Khitam Sa'afin 17 urtez, Palestinako Lurralde Okupatuetoak irakarle lanetan aritu zen. Ikasle eta sindikalista zenetik, Palestinako askapenaren aldeko borrokan parte hartu du. Horrez gain, BDS kanpainako batzordeko kidea da, nazioarteko hitzaldietan parte hartzen du eta emakume palestinarren eskubideen aldeko zenbait lantaldeetako kidea ere bada nazio-mailan zein nazioartean.

Palestinako Emakumeen Lantaldeen Batasuna (UPWC) emakumeen erakundea da. 1980. urtean sortu zen, eta Palestina okupatuko emakumeekin lan egiten du ikuspegi ezkeriarretik, emakume palestinarren eskari nazional eta sozialaren artean lotune organiko sakona dagoela kontuan hartuta. 5.000 emakumetik gora biltzen ditu taldeak.

#### Hitzaldia

Honela, astelehen goizean, Sa'afin Lasarte-Oriako alkatearekin bildu zen.



Khitam Sa'afin-ek Palestinak bizi duen egoeraz eta emakume taldeen borrokoz hitz egin zuen astelehenean.

Arratsaldean, berriz, Emakumeen Zentroak sustatuta, Palestinako emakumeek bizi duten egoera azaldu zuten Villa Mirentxun eta hurbildu ziren herritarrek haien esperientziak azaldu edo galderak egiteko aukera izan zuten.

Era honetara besteak beste, emakumeen lantaldeek Palestinan izan diren aldatuta politikoen ondorioz eman behar izan dituzten pausoak azaldu zituen lehenik. Gaur egun esate baterako, lege erreforman aldatetako proposatzeko aukera dute. Bestetik dituzten baliabide ekonomikoekin herritarrei laguntza eskaintzen saiatzen direla ere aipatu zuten.

Honetaz gain, emakumeen eskubideak eta eskubide nazionalak parekatu nahi dituztela azaldu zuten. Baina horretarako herritarren eskubideak alde batera ezin direla utzi azpimarratu zuten Sa'afinek.

Hala ere, egun emakumeen artean eztabaida handia dagoela jakitera eman zuten. Izan ere, nolabait emakumeen eskubideak alde batera utzi behar dituzte nazio eskubideak edo independentzia aldarrikatzeko.

#### Egoera latza

Palestinako egoeraz ere mintzatu zen.

Palestinako gatazkan erlijioa eta politika nahasten direla aipatu zuten. Baina arazo erlijiosoa ez dela azpimarratuz. Sionismoa baino lehen erlijio guztiak elkarrekin eduki bizi baitziren.

Khitam Sa'afinek aipatu legez, kolonialismo egoera bizi dute Palestinan. Israeldarrek eremuak okupatzen dituzte eta horma eraikitzen dute hauen inguruan. Hau Berlinekoa baino garaia dela gogoratu zuten, "3 bider".

Honetaz gain, Gaza blokeatua dagoela eta israel-

darrek kontrolpean dutela; judutarrek palestinarrek Jerusalemetik botatzen ari direla eta horretarako etxeak erainsten dituztela; 2000. urtetik israeldarrek milioi bat baino gehiago olibondo moztu dituztela edo Zisjordanian urarekin arazo larriak dituztela adierazi zuten. "Palestinarrek hiru edo lau hilabeteetan urik gabe egon daitezke, baina kolonoek egunero eskuratu dezakete".

Eta errefuziatuetaz ere mintzo zen. Nahiz eta nazioarteko babesa eduki errefuxiatuak haien lurraldera ezin direla bueltatu aipatu zuten.

"Siriako errefuxiatuak leku aldatu behar izan dira edo Europara egin dute saltoa gerratik ihesi. Beste batzuk gerran hil dira. Eta kasu honetan ere emakumeak dira biktimak".

Hau guztiagatik, nazioarteko laguntza beharrezkoa dutela jakitera eman zuten.

**EUROMIKEL'S, S.L.**

MK'S

N-1 Ctra 441 km, 34 Polg.  
20150 Villabona  
Tel.: 943 360850  
943 365401  
boxes@euromikels.com  
www.boxeseuromikels.com

Hazlo tú mismo

**Auto Mekanika BOXES**

OFERTA ESKANTZAN

943 360850

Urtero KOTXEA, MOTO edo FURGONETARI  
ERREBISIOA egiten edo OLIOA aldatzen,  
**zergatik hainbeste ordaindu ?**  
**Hiru aukera dituzu :**  
**zuk egiten duzu**  
**zuk gurekin ikasiz**  
**guk egiten dugu**

**DEITU ETA ESKATU PREZIOAK  
KONPROMEZURIK GABE**

Neure kabuz



Unai Muñoz

Laguntza behar dut!

Berriki irakurri dut zailagoa egiten zaiela gizonei laguntza eskatzea emakumei baino. Ez da harrizko-koa kulturalki gizonoi ezarri zai- gun roleri erreparatuz gero, ahalaren balorea merituzat ulertu izan baitu maskulinitateak, indar- rarenarekin batera. Are gehiago, emakumezkoak lekuko direnean, printzeak babesten baitu printzesa ipuin guztietan.

Autonomia eta autosufizien- ztia nahasten ditugu gehiegitan, menpekotasuna eta elkar osatzea nahasten ditugun moduan. Osota- sunaren hondar ale bat besterik ez bagara, zergatik eskatzen ote diogu gure buruari ahal osoa? Etengabeko alderaketan bizi gare- lako, akaso? Urkoaren begietatik neurtzen garelako? Mugaz zein bertutez osaturiko gizaki garen heinean, laguntza eskatzeko beste umilak izango bagina, koopera- zioan oinarrituko genuke gure jar- dun soziala, eta ez konpetizioan, ohi dugun gisan.

Sarri izan dut laguntza eska- tzeko premia, sarri egon naiz erortzear eta esan dut ez nuela ezer behar, baina ikasten ari naiz, eta autonomiaren esanahia ulert- zen hasi naizelakoan nago. Hau da, autonomia ez da gure bakar- dadean guztiari erantzuteko gaita- suna, ez eta ahuldadeak ezkutatzea besteen aurrean, gure balioa gutxietsiko dutelakoan, egoerei aurre egiteko baliabideak izatean datza, baizik.

Laguntza eskatzen dakienak, edozein gertakariren aurrean jakingo du nola ekin eta egoera zailenetatik nola atera. Jakingo du bestek duen garrantziaren berri eta jakingo du behar duenari eskua luzatzen ere. Aldiz, gogo- rrenaren egiten duenak inoiz baino ahulago sentituko du bere burua, nire esperientziaren arabera, beti ere.

Ez zaude bakarrik eta ez zara bakarra, guztiok daukagu elkarren beharra.

Zorion agurrak



Unai

Zorionak pottok! Oso oso ondo pasa zure urtebetetzean. MZ. Hamaika mila muxu gure partetik.



Ainara

Zorionak sorgintxo! primeran pasa zure hamargarren urtebetetzean, muxu potolo bat familiaren partez!



Iraia

Zorionak printzesa! 7 muxu pottolo pottolo amatxo, aitaixo eta Leireren partetik.



Asier

Zorionak txapeldun! Zortzi muxu handi etxeko guztien parte- tik. Segi horrela!



Iraia

Zorionak sorgintxo!!! Lau muxu potolo etxe- koen partetik.



Olaia

Zorionak printzesa, zure zazpigarren urte- betetzean, Gurasoen eta anaien partetik. Muxu handi bat.



Jon

ZORIONAK!! 18 muxu potolo familia- ren partetik Oso ondo ospatu bidaian lagune- kin!



Malen

Zorionak maitia! 6 muxu potolo amatxo eta aitaixoren partetik.



Amaieur

Zorionak gure etxeko printzesari!! Oso ondo pasa. 6 muxu potolo, Ekaitz, Amona Feli, Aita eta Amatoxoren partetik.



Sara

Zorionak printzesa txokomarrubizko bi muxu potolo guraso eta familiaren partetik!! Ondo pasa zure egunean.



Maialen

Zorionak 'printzesa' eta muxu asko familia- ren partetik. Maite zaitugu.



Lur

Zorionak maitia! Oso ongi ospatu 10 urte eder horiek eta segi horrelako jator!

Zorion agurrak bidaltzeko 943 36 68 58, txintxarri@txintxarri.info edo txintxarri.info web orrialdeko formularioa erabili dezakezue.

Azoka txikia

Eskaintza immobiliariorako

- Logela alokatzen da pertsona bat edo birezat Usurbilen. Prezio interesgarria. 657535299
- Garajea saltzen da erdialdean, Zapategi kalea. 14 metro karratu. Telf: 607 491 663, Ariz.
- Garajea alokatu edo saltzen da. Zuma- buruko Liberto eraikuntzan. Bi kotxeentzako lekua du. Harremanetarako, 669 813 035 edo 677 501 906.
- Garajea alokatzen da Hipodromo etorbi- dean. 943 36 24 72

Salerosketak

- Lehen jaunartzeko mutilen jantzia, taila 10 eta surferako neopreno jantzia, S tamaina saltzen ditut. Egoera onean. 943 363 371.

Lan-eskaria

- Garraiolari edo biltegizain lanak egiteko gizona prest. 657535299
- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egin, haurrak edo pertsona adinduak zaintzeko. 631 253 468
- Etxean garbiketa lanak egin edo pertsona nagusiak zainduko nitzuke externa edo inter-

Heriotzak Jaiotzak

Jaiotzak

- Jare Goenaga OIasagasti, apirilaren 2an.
- Inge Mora Urdangarin, martxoaren 31ean.

Heriotzak

- Felix Perez Lopez, apirilaren 6an, 80 urte zituela.
- Jose Bautista Nogueira, apirilaren 3an, 71 urte zituela.



Farmazia Goardiak

EGUNEKOAK: 09:00-22:00

Ostirala, 11 Gil, Kale Nagusia 24	943 361529
Larunbata, 12 Gandarias-Urbe, l. de Loyola 9	943 019521
Igandea, 13 Gandarias-Urbe, l. de Loyola 9	943 019521
Astelehena, 14 Gandarias-Urbe, l. de Loyola 9	943 019521
Asteartea, 15 Orue, Jaizkibel plaza 2	943 362652
Asteazkena, 16 De Miguel, Kale Nagusia 32	943 371151
Osteguna, 17-Astelehena, 21 Urbistondo, San Frantzisko 1	943 366567

**GAUEKOAK: 22:00-09:00, egunero**  
Aldabe, Perkaiztegi 8,  
Hernani. Tel.: 943 336 022

Larrialdi telefonoak

Osasun Zentroa DYA	943 007960 943 464622
Gurutze Gorria Udaltzainak	943 363953 943 362442
Ertzaintza SOS Deiak	943 288888 112

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



LASARTE-ORIA  
UDALA

Txintxarrik ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Laguntzailea



Argitaratzailea:

Ttikon Kultur Elkarte  
Geltoki kalea 4  
20160 Lasarte-Oria  
943 366 858/943 371 448  
G-20407557

Legezko gordailua:

SS513/93  
ISSN: 1134-0053

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Aleak zenbakiko: 7.800

txintxarri

Erredakzioa:

Maidor Azurmendi, Nerea  
Ezzagire, Jon Altuna E.  
txintxarri@txintxarri.info  
Publizitatea eta administrazioa:  
Arantza Artola

publizitatea@ttakun.com  
administrazioa@ttakun.com

Laguntzaileak:

Unai Muñoz, Gorka Lasa,  
Ane Lebaka, Maïlu Arruti,  
Asier Odriozola, Jone M.  
Hernandez, Oihana Salazar,  
Pako Aizpitarte, Edu Galardi

Informatikoa:

Xabier Amadoz

UDALA

# Garaikoetxeako jangela aurrera

*Gaur 2014 urteko aurrekontuak aztertuko dituzte*

Asteartean, ohiko udalbatzarra burutu zen. Honetan 2013 urteko ekitaldiari amaiera emateko hainbat ekonomia kontuen berri eman zen. Landaberrigaraikoetxean jangela eraikitzeke lehen pausoa eman da eta genero indarkeriaren aurkako premiazko mozioa ere aurkeztu zuten alderdi guztiek.



Udalbatzar kideek genero biolentziaren aurkako mozio bateratua aurkeztu zuten.

TXINTXARRI

**A**pirileko ohiko udalbatzarrean lehenik, Ogasun batzordeko buruak Estitxu Alkortak 2013 ekitaldian kredituak aldatzeko gaur arte bideratu diren dosierriak, diruzaintzako kontuen errejistroa eta 2013ko ekitaldiko likidazioa azaldu zituen.

Honela, 1.243.284,23 eurotako likidazioa dagoela azaldu zuen. "Sarrera arruntak 20.827.016,66 euro izan dira eta gastuak berriz, 19.516.300,93 euro".

Diruzaintzako gerakina 1.849.719,03 eurotako dela eta 2014 urtean aurreikusitako gastuei aurre egiteko balioko duela adierazi zuen.

Gainera, 2013. urteko ekitaldirako aurreikusia zegoen mailegua eskatu ez dela ere azpimarratu zuen.

Era berean, 2014 ekitaldian kredituak aldatzeko gaur arte bideratu diren dosierren berri ere eman zuen eta hauen bitartez, besteak beste, Tximistarretako urbanizazioa

eta hainbat asfaltatze lan egingo direla gogoratu zuen.

**Jangela**

Bestalde, Landaberrigaraikoetxea irakaskuntzarako ekipamenduaren xehetasunezko estudioaren aldaketa dokumentua ere onartu zuten alderdiek, PPren abstentzioarekin.

Nerea Sanchez, Hirigintzako buruak azaldu zuenez, Hezkuntza eta Landaberririkastolarekin hainbat bilera egin ostean, Udalak proiektua beregain hartu du eta xehetasun azterlan bat egin du. "Honela, 260 metro karratuko jangela izango da eta solairu batekoa". Udalak gainera zimenduak jarri behar dituela jakitera eman zuen.

**Genero biolentzia**

Hau guztiaz gain, azken asteetan herrian jazo diren genero biolentzia erasoak direla eta, premiazko mozioa aurkeztu

zuten alderdi guztiek eta aho batez onartu zuen.

Honetan, hala nola, erasoak gaitzetsi eta egoera horretan dauden emakumeei salaketa jartzea eskatzen die Udalak.

Azkenik, galdera eta errenguen txandan PSE-EEK hartu zuen hitza.

Castells abokatuak bere balorazioa noiz egingo duen eta balorazioa egiteko epea jarriko dioten galdetu zuen. Izan ere, "16 egun pasa dira Barne batzordea egin genuenetik" eta "60 orrialde irakurtzeko denbora izan du" aipatu zuen Jesus Zaballoz bozeramaileak.

Alkateak oraindik erantzunik jaso ez dutela eta luzatzen bada epe bat jartzea baloratuko dela erantzun zuen.

**Aurrekontuak**

Bestalde, gaur goizean, 9:30etatik aurrera 2014 urteko aurrekontuak aztertuko ditu Udalbatzarrak ez ohiko deialdian.

PAILAZOAK

## Bizipoza ikuskizuna apirilaren 26an

Xirimiri elkartearen 25. urteurrenaren ospakizunen barnean Pirritx, Porrotx eta Marimototsen Bizipoza ikuskizuna izango da Manuel Lekuonan apirilaren 26an. Egun horretan herriko pailazok bi emanaldi eskainiko dituzte, 16:30ean eta 19:00etan eta dagoeneko salgai daude sarrerak.

Saioetan pailazoez gain, Jalgune elkarteko lagunek parte hartuko dute hainbat dantzatan.

Sarrerak 7 eurotan daude salgai dagoeneko Lasarte-Oriako Jalgi Kafe Antzokian eta Uruzola mertzerian.

GARRAIOA

## Autobus zerbitzuaren proiektua zehazten

Gipuzkoako Foru Aldundiak asteazkenean Villa Mirentxun garraio zerbitzuak hobetzeko proiektu berria aurkeztu zuen.

Prozesuko lehen fasea urrian egin zen eta honetan bildutako iritzi eta proposamenekin proiektu bat egin da. Foru Aldundiko kideek asteazkenean herritarrei azaldu zizkieten Lasarte-Oriari dagozkion aldaketak. Esate baterako, Lasarte-Donostia linearen ostiraletako azken orduko zerbitzua 1:00ak arte luzatu eta zerbitzu-maiztasuna handituko dela aipatu zuten, baita Oriá eta Ospitaleen arteko linea berria ezarriko dela ere.

Oraingoan ere, herritarrek proposamenei buruz iritziak emateko aukera izan zuten.

ATERPEA

## Bazkide kanpaina hasi da



Aterpea elkarteak bazkide kanpaina berria jarri du abian.

Lasarte-Oriako komertzio, ostalari eta zerbitzu enpresei eskutitzak bidali dizkie elkartearekin bat egin dezaten.

Ramon Ormazabal, Aterpeko lehendakariak, azaldu duenez, hilabetero 10 eurotako kuota da ordaindu beharrekoa. Honek hainbat onura eskaintzen dizkie bazkideei: ikastaro, zerbitzu, informazio eta Udala edo Caja Ruralekin dituzten hitzarmenen parte izatea.

Dioni Avila, Merkataritza teknikariak, Udala eta Aterpearen elkarlana garrantzitsua dela azpimarratu du eta bazkide egitera animatu ditu komertzio, ostalari eta zerbitzuak. Bazkide izateko 637 955 030 zenbakira deitu behar dute interesatuek.

KULTURARTEKOTASUN ASTEA

## Zozketak badu irabazlea

Sasoeta-Zumaburu ikastetxeko Burunzpe guraso elkarteak Kulturartekotasun astea ospatu zuen lehengo asteburuan. Honen baitan, urdiaizpiko baten zozketa egin zuten eta irabazlea 159 zenbakidun txartela dela jakitera eman dute.

Onuraduna Burunzpe elkartearekin harremanetan jarri behar da saria jasotzeko.

## Legazpiko esperientziak hausnartzen

**L**egazpiko alkatea Kepa Urze-Laik Sagrario Etxabe alkateordearekin herriko EHBilduk antolatutako hitzaldian azaldu zuen hondakin biltzea mistoa. Aurretik alderdiak azken asteetan 5. edukiontzia dela eta zabaldukoak argitu nahi izan zituen.

Sistema mistoa proban jarri da Legazpin eta atez ateko sistema eta 5. edukiontzia uzartzen ditu. Ohiko zaborontziak herritik kendu dira baina papeira, plastikoa eta beira jasotzekoak mantendu. Horrela izanda, horiek berziklatzeko orain arte bezala egiten dute.

Bestalde, herritar guztiek atez ateko sistema erabili behar dute errefusa, birziklagarria ez dena, ateratzeko. Astean behin jasotzen da eta kalean jarritako



zintzilikarietan utzi behar dute kubo grisa. Hala aukeratu duten herritarrek ere, organikoa kubotan atera dezakete astean hirutan. Bestela, herrian materia organikorako 5. edukiontzia jarri da eta hau erabili dezakete atez ateko sistema nahi ez duten herritarrek.

Orain arte emaitzak onak ari dira izaten.

## Indarkeria sexistaren aurka

**H**erriko emakume talde batek deituta elkarretaraztea egin zen asteazkenean Okendon herrian gertatutako eraso sexistak gaitzesteko.

Deialdiarekin bat egin zuten udaleko alderdi guztiek eta honetan parte hartzeko deia luzatu zuten ere asteartean egindako agerraldian.

Gogoratu behar da aurreko astean bi gizon atxilotu zituztela herrian euren bikoten aurka indarkeria erabiltzeagatik.

Horretaz gain, asteburu honetan ere, beste eraso bat gertatu zen herrian, kasu honetan Errenterriko bikote bat. Gizona bere bikotea bortxatzen saiatu zen eta honen erresistentzia dela eta jipoitu egin zuen eta kotxearekin



Hainbat herritar eta zinegotzi bildu ziren asteazkenean Okendo plazan.

harrapatzen saiatu. Inguruko bizilagunek eskatu zuten laguntza emakumeari bikotekideak eragindako zauriak ikusi ondoren.

Horrela izanda, jende andana gerturatu zen Oken-

dora "Erasorik ez, erantzunik gabe! Nahikoa da!" lelopean.

Elkarretaratzean parte hartzen ikusi ahal izan ziren udaletxeko hainbat zinegotzi eta tartean Pablo Barrio alkatea.

Josu Zubillaga ikastetako psikologo eta aholkularia

# “Koherentzia da balore hezitzailea, baina hizkuntzan ere”

Eskola da haurren sozializatorako bigarren gunea; familia, lehenengoa. Umeen nortasunaren oinarria etxean transmititutako baloreek, ohiturek jartzen dute, Josu Zubillaga psikologo eta aholkulariaren ustez.



“Familia ereduak aldatu dira, baina umeen beharretatik abiatuta, premiak berdinak dira

aritzeko gai bagara, eskolak indartu egingo du. Anaxoa sortzen da norantza beraren ez gozanean. Bizitza soziala geratzen den toki guztietan arauak daude, eta oinarrikoa da horiek ezarzea. Pertsonok sistematan egiten gara pertsona, psikologia sistematikoa araberak. Lehenengo sistema familia da. Hor jasozen dira lehenengo zainzak, gidaritzak, oinarriko nortasuna. Eta bigarren sozializazioa eskolan geratzen da.

Askotan geriatzen al da norantza desberdinean joateak? Zorionez, ume gehienak ondo daukete familia ghibeentzen ia modu inkonizientean hezten dira. Baina tarteka etxe batuzeren artean okerra egiten da: gurasoak haurra- ren lagun edo kolega izan ditezakela, eta ez. Etxean umea behar dituzten zain- diak, Nostki, umeen zainzak denbora eskaltzen du, eta gaur egun gatazka moduan bizi dugun familia eta umei ematen diegun denbora eta gure- tzat hartzen duguna.

Hastieran, denbora asko behar da umeentzat, eta hazten diren heinean, urrutiratu egiten dira; gaitasunak hartzen dute. Baina gurasoek sentituzten duteen ez direla ir- ruzten, bazuetan, nahigoa dute ere egiten du...

“Oraingo guraso asko ikastolelako ikasle ohiak dira; badakite euskaraz, baina gatzelamirara jotzeko ohitura dute. Ez gara oso koherenteak

kolega izan eta gatazka ekidin ezin dire; gatazka, ordea, ezinbestekoa da heziketa. Honek berran eskolaren gain ardurak asko uzten ditu, eta ezinbestekoa da familarekin eta eskolaren arteko harremanaz ezin diratjaratu.

Euskara bultzatzeko lanean ere erlajatu egin gara? Moltbazioa handia zen dika- duran aurre egiteko eta beste eskola eta gizarite mota bat, hobeak, lotzeko. Administra- zioak bere gain hartu duen- oan, ordea, erlajatzeko gertatu da, eta baita euskararekiko transmisioan ere. Oraingo guraso asko ikastolelako ikasle ohiak dira; badakite euskara, baina gatzelamirara jotzeko ohi- ahituek ikasteko zerbait behar dute, hori da koherentzia; balore hezitzailea da, eta baita hizkuntzan ere. Ez du balio haurrak esatea euskaraz egite- ko, eta norberak ez egitea.

Bestealde, aieziozko ematen dit zentab eskultadunak den gizaritea, baina ez esparru informalean. Ez dakigu bixte pasatzeko gatzelamirara jotzen dugun. Eredu eskasa da umeentzat. Ez dugu koheren- tzariarik, eta etxeko ghibeak etxetik dato; etxean euskaraz egiten bada, umeak primeran egiten du eskolan; etxean ondo eserita eta familian jaten dutean, jangelan eta eskolan ere egiten du...

Balio berak transmititzen al dira eskolan eta etxean? Frankismoarekin oso lotua ikusten dugu autoritarismoa, eta orduko irakaskuntza eta hezkuntza autoritaristak aurre ez du laguntzen. Baina batzuek nahasa egiten dute autorita- rismo autoritatearekin. Tarte- ka, eskolan deitakizten dugu familia batean autoritatearen ulermen eskasa dagokela, eta horrek ez dio umeari lagun- tzen. Autointeak itxuraz gaur- gurusoek eredu desberdinak dituzte, eta horrek ere seguru- tasun eza sortzen du. Ondor- ritz, familiek desberdin jokazen dute umeen premie- tzen, eta transmititzen diren baloreekiko. Hala ere, atzean dagoena beti da umeak zer behar duen.

## Zailtasunak etxeko erabilerak gora egin dezan

Euskararen ezagutzak gora egin du Buruntzaldeko herrietan azken 20 urteotan; batez beste, 7 puntu. Baina etxetan ez da hori antzematen. Orain dela 20 urte baino gutxiagoan ari gara euskaraz soilik.

Dela 20 urte murrugokoa zen egoera. Gehiago ziren etxe eskaldunak (euskaraz bizi zirenak) euskaraz ondo zekiten eta erabilizten zuten kidez zekiten, baina ez ziren erabilizten ondo zekiten (kide batzuek edo denek euskaraz ez zekiten, baina ez ziren erabilizten ondo zekiten).

20 urte berandago konplexuagoa da egoera. Cursiako dira etxe eskaldunak (euskaraz soilik ari direnak), eta gehitzen ari dira etxe eskaldunak (mohabit esateraz), bazeuzan euskaraz eta bazeuzan gizaletan ari direnak. Etxe erabilizten duen etxeko erabilerari: Familialdean ezagutza mailak, noski, zerbait eta maila hobea izan, orduan eta eragozta eta eragozta atxikatu gara, eta, alderantziz, baina, ezagutza mailaz gain, euskaraz hitz egiteko ohihurtak edo ohihurtak ere berebiziko garrantzia du.

Sozioinguruetan aditu direneko dionez, etxeko hizkuntza bat ala beste izatea, bikoiztuetan edo etxeko helduen arteko erabilerak baldintzatzen du. Kide helduen arteko hizkuntzak markatzen du etxean, ohihurtak, erabilerak den hizkuntza. Eta etxeko erabilerak markatuko du, era berean, kide horiek, etxetik kanpo, hizkuntzazko izango duten jarrera eta porjara.

Etxeko erabilerak Buruntzaldean azken 20 urteotan. Etxean euskaraz soilik ari direnak.

(%)	1991	1996	2001	2006	2011
Andoain	26	26	27	21	22
Astigarraga	42	44	37	32	31
Hernani	27	28	29	28	26
Lasarte-Oria	17	16	15	13	13
Urmietako	35	35	31	27	26
Uztarri	52	56	54	44	42

### EUSKARA HANIKAZ GORA



### EUSKARA BIRUZ GORA



### ETXEAK DU GILTZA!

## LABURRAK.

Gimnasta infantilak  
Gipuzkoako txapelketan

Martxoaren 6an, gimnastika erritmikoko eskolarteko B mailako bigarren fasea egin zen Alzako kiroldegian. Bertan LOKEko infantil mailako gimnastek Gipuzkoako txapelketarako txartela eskuratu zuten.

LOKEko taldeak lehen postua eskuratu zuten uztaiarekin egindako lanean eta sailkapen orokorrean 3. izan ziren.

Naroa Sanzek bakarkako lanean pilota izan zuen tresna bezala eta 6. sailkatu zen bai saioan, baita sailkapen orokorrean ere.

LOKEko entrenatzaileak oso pozik daude. Izan ere, maila guztietako talde eta bakarkakoak sailkatu baitira Gipuzkoako txapelketarako.

## Izen emate azken eguna

Ostadar SKT-ko saskibaloia atalax 8 urtetik 12 urtera bitarteko gazteei zuzendutako Saskibaloio eskola antolatu du Aste Santuan. Izen ematea gaur amaitzen da. Ostadar SKT-ko bulegoan, Geltoki kalea 4, egingo da inskripzioa.

## PILOTA.

## San Pedro jaietan pilota eta pala txapelketak

Intza elkarteak emakumeentzako pala txapelketa antolatu du aurten lehenengoz

**Intza kirol elkarteak San Pedro jaietako gazte eta beterano pilota txapelketak antolatuko ditu aurten ere. Aurtengo berrikuntza nagusia, emakumezkoen pala txapelketa da.**

## TXINTXARRI

San Pedroetako pilota txapelketan izena ematea ireki du Intza elkarteak. Honetan, gazte edo beteranoek pilotan jokatuko aukera dute. Aurten gainera, emakumeek ere izango dute aukera, pala txapelketari esker.

Hamasei urte baino gehiagoko Lasarte-Oriako emakumeek parte hartu ahaliko dute lehiaketa honetan.

Antolatzaileek azaldu duteenez, tenis pilotekin jokatuko dute hirutik hirura egingo da sarea eta partidak 18 tantora izango dira.

## Esku pilota txapelketak

Bestalde, esku pilotako XXII.

San Pedro txapelketa izango da ere.

2000 eta 2005 urte artean jaiotako Lasarte-Oriako haur eta gaztetxoak hiru maila ezberdinetan banatuko dira benjamin, alebin eta infantilak.

Partidak larunbata eta igandeetan jokatuko dira Loidi-Barrenen. Arduradunek azpimarratu dutenez, kirol arroparekin jokatzea derrigorrezkoa da eta finalerdi eta finala zuriz jokatuko dira.

Gainera, laugarren urtez jarraian, 36 urte baino gehiagoko beteranoek pilotatz gozatu ahaliko dute.

Hauek pilota goxoarekin eta 22 tantora jokatuko dituzte partidak.



Gaztetxo, beterano eta aurten emakumeek ere jokatuko dituzte finalak San Pedro Jaietan.

## Izena ematea

Txapelketa hauetan parte hartu nahi duten herritarrek astearte edo ostegunetan 18:30etik 20:30era Michelin Kirol guneko pilotalekuan edo [solanojf@hotmail.com](mailto:solanojf@hotmail.com) helbide elektronikoan eman dezakete izena. Azken eguna maiatzaren 6a izango da.

## GRAVNI txapelketa

Bestalde, GRAVNI txapelketa aurrera doa. Aurreko aste-

buruan Iparralderen aurka jokatutako Gipuzkoako selekzioak eta Axier Arteaga eta Aritz Solanok haien partidak irabazi zituzten.

Arteagak eta Erasunek 22-4 garaitu zuten Iparraldeko bikotea Donostiako Atano III. Pilotalekuan jokatutako partidaren. Solanok eta Azpirozek aldiz, Irurako trinketan 40-23 irabazi zuten.

Asteburu honetan Errioxa izango dute aurrez aurre.

## KIROL AGENDA.

## FUTBOLA

Larunbata 12  
Michelin, 10:00etan  
Ostadar-SANSE  
Jubenilen Ohorezko maila

Martutene, Donostia, 11:00etan  
Martutene-Ostadar  
I. infantilak, txapelketaren fasea

Michelin, 11:30etan  
Ostadar B-Amara Berri  
I. infantilak, kopa

Karla Lekuona, Oiartzun, 11:45ean  
Oiartzun-Ostadar I. kadeteak, kopa

Bolue, Getxo, 12:00etan  
Getxo-Ostadar  
Euskal Liga, Kadeteen Ohorezko maila

Harane, Usurbil, 15:00etan  
Usurbil-Ostadar  
Emakumezkoen Liga, kopa

Michelin, 15:00etan  
Ostadar B-Martutene  
I. kadeteak, kopa

Berazubi, Tolosa, 16:30etan  
Tolosa-Ostadar  
Erregional Ohorezko maila

Michelin, 17:00etan  
Ostadar-Astigarragako Mundarro  
I. Jubeniak, igogera

Ubitarte, Andoain, 19:00etan  
Euskalduna-Texas Lasartearra  
I. Erregionala, kopa

Igandea 13

Michelin, 11:30etan  
Ostadar-Tolosa  
2. urteko alebina eskola

Arizti Handi, Lazkao, 16:30etan  
Lazkao-Texas Lasartearra  
I. Jubeniak, kopa

## ARETO-FUTBOLA

Ostirala 11  
HERRIKO TXAPELKETA  
19:45ean, Ilargi-Viña del Mar  
20:45ean, Urdaneta H.K.-Buenetxea

Beraungo pilotalekua, Errenteria, 21:45ean  
Gamon Aker Pub-ISU Leihoak  
Gipuzkoako Liga

Larunbata 12  
HERRIKO TXAPELKETA  
09:15ean, Arizta taberna-Izarra bitxitegia  
10:15ean, Trumoi-Balerdi harategia  
11:15ean, Indaux-Arkupe  
12:15ean, Izkiriña-Txiindoki

Olaranbe kiroldegia, Gasteiz, 18:30ean  
Aurrera Vitoria-Aldaz H.K.  
Nazional III. maila

## SASKIBALOA

Larunbata 12  
Kiroldegia, 16:00etan  
Ostadar SKT-Bera Bera Manteo  
Nesken kadete maila, errendimendua

## ATLETISMOA

Larunbata 12  
Pasaia, 17:00etan  
Herriko hainbat atletek Pasaiaiko Mendiko herri lasterketan parte hartuko dute.

Igandea 13

Bera, 09:30etan  
Herriko hainbat korrikalari

X. Berako mendi maratoni erdian lehiatuko dira.

Donostia, 10:30etan  
Herriko hainbat korrikalariak AEK-ren II. binakako lasterketan parte hartuko dute.

Unbe, Eibar, 10:00etan  
Landaberri eta Sasoea-Zumaburu ikastetxeetako alebin eta infantil mailako atletak Gipuzkoako txapelketako hirugarren jardunaldia izango dute.

## SQUASHA

Ostirala 11  
HERRIKO TXAPELKETA  
Kiroldegian, 18:00etatik aurrera  
A eta B multzoko partida bana ikusteko aukera.

Astelehena 14-Asteazkena 16

HERRIKO TXAPELKETA  
Kiroldegian, 18:00etatik aurrera  
A eta B multzoko partida bana ikusteko aukera.

Asteartea 22-Osteguna 24

HERRIKO TXAPELKETA  
Kiroldegian, 18:00etatik aurrera  
A eta B multzoko partida bana ikusteko aukera.

## JUDO

Larunbata 12  
Usabal kiroldegia, Tolosa, egun osoa  
LOKEko hainbat judoket gerriko

beltza edo DAN-ak eskuratzeko azterketa dute.

Igandea 13  
Mendillorri kiroldegia, Iruñea, 11:00etan  
LOKEko Asier Sagasti senior mailako Espainiako txapelketako Iparraldeko sailkapenean izango da lehiaria.

## PILOTA

Larunbata 12  
GRAVNI TXAPELKETA  
Atano IIIa, Donostia, 10:30etan  
Gipuzkoa (Axier Arteaga)-Errioxa  
Eskuz binaka, jubeniak

## TENISA

Larunbata 12-Igandea 13  
Kirol guneko pista  
Lasarte-Oria ATG txapelketako partidak izango dira.

## IGERIKETA

Ostirala 11  
Palma de Mallorca  
Buruntzaldea IKT-ko Itsoa Tolosa eta Iñigo Ibarburu Espainiako txapelketan lehiatuko dira.

## ERRUGBIA

Larunbata 12  
Arrasate, 11:00etan  
Arrasate-Beltzak Ostadar Jaiak  
14 urte azpikoak

Anoeta, Donostia, 18:30ean  
Beltzak Ostadar Jaiak eskolako gazteak Aviron Bayonnais-ren partida ikustera joango dira.

Igandea 13  
Kirol gunea, 09:00etan  
Beltzak Ostadar Jaiak eskolako gazteek entrenamendua dute.

## TXIRRINDULARITZA

Larunbata 12  
Irun, 16:30ean  
Buruntzazpi txirrindularitza eskolako infantil eta alebinek Iruingo Saria proban parte hartuko dute.

Igandea 13  
Biyak Bat elkarteak, 08:30ean  
Ostadar SKT-ko zikloturista taldeak Guadalupe eta Jaizbelera egingo du irteera.

Eibar, 10:30ean  
Buruntzazpi txirrindularitza eskolako kadeteak LIV. Otxoa Oroimenezko proban parte hartuko dute.

Elgoibar, 16:00etan  
Buruntzazpi txirrindularitza eskolako eta herriko jubeniak XXXIV. Elgoibarko Hiria Sarian lehiatuko dira.

## BOLA-JOKOA

Igandea 13  
Añorga, 10:00etan eta 16:30ean  
Ostadar SKT-ko bola joko taldeak Gipuzkoako kopako lehen saioa du.

— Agenda —

Igandea 13, 17:00etan, Manuel Lekuona kultur-etxean



Barne-mundua eta errealitatea

Haurren zinea atalean, "Bram Barrabas" filma izango da. Bram 6 urteko haur bat da. Alaia da, kementsua, benetako abenturazale eta asmatzailea. Eta gainera, izugarriko irudimena du. Bera inguratzeko munduak pentsatzeko asko ematen dio eta "Izen onenen" eta "Hitz onenen" bilduma egiten du liburuxka batean. Bram "handien eskolara" joan eta lehenengo mailan hasteko desiratzen dago, baina Fish Jauna zorrotzaren gelan dago. Sarrera, leihatilan 3,70 euro; internet bidez, 3,18 euro. Euskaraz.

Musika

**ZULO ARETOA**  
Ostirala 11, 23:45ean  
Positive Vibes jaialdia izango da. Reggae, Dancehall, Dub, Rap estiloak izango dira. **Larunbata 12, 23:55ean**  
Cumbia, Cumbia, Cumbia jaialdia izango da gozatzeko aukera Dj Neir & Putxero Sonideroren eskutik.

**ABEND KAFE-ANTZOKIA**  
**Larunbata 12, 23:30etatik aurrera**  
Psicoacoustic taldeak The Beatles-i omenaldia egingo dio hainbat doinu eskainiaz.

**AMA BRIGITARREN KOMENTUAN**  
**Asteazkena 16, 19:30ean**  
Irungo Betiko Ametsa abesbatzaren kontzertuaz gozatzeko aukera izango da.

Irakurle-Txokoa

**MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA**  
**Astearte 15, 18:30ean**  
Eider Rodriguezen "Katu Jendea" liburua aztertuko dute eta idazlearekin solasaldia izango da.

Lasarte-Oria

Zinea

**MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA**  
Ostirala 11, 22:00etan

Okendo Zinema taldearen denboraldi berriko saioa, "La gran estafa americana" filma ikusi ahalko da. Sarrera, leihatilan, 4,70 euro; internet bidez, 4,24 euro. Gaztelaniaz. **Igandea 13, 19:30ean**  
Helduentzako zinea, "La gran estafa americana" filma ikusteko aukera izango



da. Sarrera, leihatilan, 5,90 euro; internet bidez, 5,30 euro. Gaztelaniaz.

Antzerkia

**MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA**  
**Larunbata 12, 18:00etan**

Borobil teatroak "On egin" haur antzerkia eskainiko du. Sarrerak internet bidez, 2,70 euro; leihatilan, 3 euro. Euskaraz.



Hitzaldia


**VILLA MIRENTXU**  
**Larunbata 12, 11:00etan**

Xabier Ezeizabarrenak abertzaleen tradizio politikoan Europak duen lekua aztertuko du. Ganbo Iturri elkarteak antolatzen dituen IV. Auzomintzietako saioa da.

Bakarrizketa

**ZULO ARETOA**  
**Larunbata 12, 21:30ean**

Ignatius Farray-k "El fin de la comedia" bakarrizketa eskainiko du. Sarrera internet bidez, 7 euro; leihatilan 10 euro. Gaztelaniaz.



Erakusketa

**JALGI KAFE-ANTZOKIA**  
**Apirila amaiera arte**  
Ttakun kultur elkarteak antolatzen duten, Udako Txoko eta Kanpaldien argazkiak ikusteko aukera.

— Herritarren txokoa —

Alboka Abesbatzaren Batzar Nagusia

Alboka Abesbatzak bazkideei jakinarazten die apirilaren 24an Ohiko Batzar Orokorra egingo duela, Arantzazuko Ama Birjina elizaren azpiko lokalean, 20:00etan. Bigarren deialdia, 20:30ean da. Lasarte-Oriako abesbatzak batzarreara agertzeko gonbita egin nahi die bazkideei.

Gure Esku dago

Gure Esku dago ekimenak ekainaren 8-an Durango eta Iruñea artean egingo duten giza katean Lasarte-Oriari dagokion kilometroan zure metroa erosi nahi baduzu, herriko taldeko kideak ostiralero Okendo plazan izango dira arratsaldeko 18:00etatik 21:00etara. "Ez zaitez lekurik gabe geratu Euskal Herriaren historiako une garrantzitsu eta berezi honetan, etorri bizkor!"

Erketz-eko taldeen entseguak

Erketz EDT eta Erketz-eko Lagunak taldeak lanean ari dira.

Erketz-eko Lagunak taldeak asteartetan ditu saioak eta Erketz EDT-ko kideek, berriz ostegunetan.

Entseguak Zumaburu ikastetxeko gimnasioan dira, 20:00etatik aurrera ohi bezala.

Era berean, 5 urtetik aurrerako haur eta gaztetxoek ere Erketz Txikin dantza egiteko aukera dute.

Azalpen edo informazio gehiago eskuratu nahi dutenek 635 746 028 telefono zenbakia jarri du eskura dantza taldeak.

Marrazki eta margo klaseak

Lasarte-Oria Bizilagun Elkarteak jakinarazten du, marrazki eta pintura klaseetan izena emateko aukera dagoela.

Klaseak asteazken eta ostiraletan dira, 18:30etik 20:30era Manuel Lekuona kultur-etxeko 2. solairuan.

Interesa duten herritarrak gerturatu daitezela klase orduetan.

— Hemeroteka —

Duela 1107 ale

Gaur 2014 urteko aurrekontuak aztertuko ditu Udalbatzarrak, iaz 25 milioi eurotako aurrekontua onartu zen Bildu, EAJ eta LOHPren bozkekin. 1996 urteko martxoaren 28an PSE-EE eta PP-k 2.446.645.324 pezeta edo eguneratuta 14.704.635 eurotako aurrekontuak onartu zituzten. TXINTXARRI aldizkariak honen berri eman zuen.

Udalaren egoera ekonomikoa ona zela aipatzen da artikuluan, gastu eta sarreraren artean Udalaren aldeko 100 milioi pezetetako onura baitzegoen. Eta 1995 urtearekin alderatuta, aurrekontuen kopurua %3,2a edo 76.356.443 pezeta hazi zela ere ematen zen jakitera.

Sarrerei dagokionez, transferentzia arruntak ziren diru kopuru gehien batzen zutenak, 1.105.420.144 pezeta, %45,18. Jarraian, tasak eta bestelakoak zeuden, 354.786.095 pezeta, %14,13.

Gastu handiena, berriz, soldatetan zegoen aurreikusia, %29,88, hau da, 731.075.926 pezeta. Eta inbertsioek ere zati handi bat izan zuten, %26,14, 639.571.614 pezeta. Hauetan Michelingo kirol-instalazioen erosketa, Oriako lokalak erosketa edo Sasoetako lursail batzuen esku aldatetaren gastuak zeuden kontuan hartuta.

Aipatu legez, alderdi guztiak ez ziren bat etorri aurrekontu hauekin HB-k eta IU-k aurka bozkatu zuten. EA eta EAJ berriz abstentitu egin ziren.



**Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko:** Geltoki kalea, 4 943 366858  
txintxarri@txintxarri.info

Sole Aguirre Garro Gerra Zibileko testigantza

# “Zer da hau galdetzen diozu buruari”

*Lasarte-Orian Gerra Zibilean hainbat izan ziren herria utzi edo gerrara joan zirenak. Ori auzoan bereziki asko izan ziren kartzelan egon edo gerran hildako herritarrek. Islada Ezkutatuak taldeak herritarren testigantzak jaso ditu hilabete hauetan eta horietako bat da Aguirre-Garro familiarena.*

Nerea EIZAGIRRE

**S**ole Aguirre Garro Ori auzoan hazi zen. Bere familiar Gerra Zibilak hainbat oinaze sortu zituen, baina ez berak ezta bere ahizpek ere ez zekiten honen berri. Harekin bildu gara familia honen historia ezagutzeko.

## Zure familia politikan sartua al zegoen?

Gerra baino lehen amaren familia politikan sartua zegoen. Osaba Joakin urriko iraultzan kartzelan egon ziren oriatzarretako bat izan zen.

Aitak ez zuen politikarekin zer ikusirik baina idazten eta irakurtzen zekienez, kapitain izendatu zuten gerran. Hor hasi zen bere ibilbidea.

## Familiar hitz egin al zen noizbait gerran bizitakoaz?

Nire familiar ez digute inoiz honi buruz hitz egin, nik uste dut beldurra zutela eta beste etxe askotan bezala, inoiz ez zuten aipatu.

Nire etxean gerrari buruz zer bait idatzi edo esan behar bagenuen hitz proposena ixo izan zen. Hitz egitera joan eta ixo, gertatutako zer bait azaldu eta ixo...

## Baina zer bait bazenekiten...

Osaba Talledon, Kantabrian, hil zela bagenekien. Tiro galdu batek jo zuela esan zioten familiari.

Aitona Galizian hil zen Upo-mendi ontzian eta bertan lurperatu zutela eta Andoaingo Navaridas batek idazten zizkiola eskutitzak aitona alfabetatu gabea zelako.

Aitarena ere berdin. Bagenekien gerran izan zela, kartzelan egon zela. Nik banekien Aretxabaleta aldetik zauritua zela eta lehengusu batek atera zuela, Agustin Etezar. Horiek, familia guztia Frantziara joan zen. Nik xehetasun txikiak nekizkien baina ez besterik. Aitak niri ez zidan inoiz ezer kontatu.

## Noiz hasi zinen familiako historia ikertzen?

Donostian argazki erakusketa bat ikustera joan eta nire aitari irudi bat ikusi nuen. Argazkia nola eskuratu jakin nahi

izan nuen eta Aranzadira joan behar nuela esan zidaten.

Bertara joan eta Pako Etxeberria eta Egañarekin hitz egin nuen.

Eta aita hil zenean, duela 17 urte, hasi nintzen gehiago sakontzen.

Amari galdetu nion aitak paperik bazuen. Amak karpetak bat zegoela aipatu zidan. Nik ez nion esan Aranzadiko kideekin lanean ari nintzela.

Begiratzen hasi eta bertan aitak Oriako mutilen nominak eta berari egindako epaiketaren paperak zituen besteak beste.

## Eta zer aurkitu zenuen...

Jakin genuen Santoñan harrapatu zutela. Kargua zuenez, 30 urteko zigorra ezarri ziotela eta El Puerto de Santa Mariara eraman zutela.

Aitak beti esaten zigun Unibertsitatean egon zela. El Puertoko kartzelari Unibertsitatean deitzen zion. Bertan apaizak, unibertsitateko irakasle gehienak edota kargu publikoren bat izandakoak zeuden atxilo. Gehienak euskaldunak. Eta zer bait egin behar zutenez, klaseak ematen zituzten.

Aurrerago, Zaragozara bidali zuten eta 24/48 orduko baimena eman zioten Oriara etorri eta amarekin ezkontzeko. Ezkondu eta ama Zaragozara joan zen berarekin.

Nire ahizpa zaharrena jaiotzeko zegoela Oriara bueltatu ziren.

Aita 1936tik 41/42ra arte ez zen Oriara etorri. Sei urte egon zen gerra, kartzela eta erbestean.

Gainera erbesteatua izan zen bakarra dela uste dugu. Gazte gehienak Frantziara joan ziren edo gerran hil ziren.

Hala ere datu asko galdu direla uste dut eta aitak kontatu ahal zituen. Izan ere, memoria oso ona zuen. Aurreko batean Oriako auzotar batek gogoratzen zidan hori. Baina garai batean oso arriskutsua zen hitz egitea eta aitak hainbeste bizipen gogorren ostean, ez zuen ezer kontatzen.

**Aranzadikoek osabaren berri eman zizuten, baita haren gorputza aurkitu ere...**

Egun batean Aranzadikoek deitu eta hitz egin behar genuela esan zidaten.

Talledoko herritarrekin hitz egin eta hilerrian bi gazte zeudela aipatu zieten.

Horietako bat nire osaba zen begiratu behar genuela eta hara joan behar ginela esan zidaten.

## Kantabrian egin zen lehen hilobi ateratzea izan zen...

Bai eta uste dut bakarra izan zela. Izan ere, hilerria da eta elizaren lurra dira, ez Kantabriako Gobernuarena.

Hango apaizak eman zuen baimena hilobiak zabaltzeko, baina baimen hori bakarrik izan genuen.

## Herritarrek asko lagundu zuten, ezta?

Ni oso eskertua nago Talledoko herriarekin. Herriaren memoriarako ere oso garrantzitsua izan zela pentsatzen dut.

Herriko jende asko bildu zen. Bi gazte euskaldunen berri guztiak omen zuten. Baina sekretu bat bezala gordetzen zen herrian, guztiak zekiten baina ez zuen inork horri buruz hitz egiten.

Zehazki lurperatuta non zeuden azaldu zuten. Eskolako maistrak loreak eramaten zizkiela eta umeekin otoitz egitera joaten zela aipatu ziguten ere.

Eta horretaz gain, datuak eskaini zizkiguten, zeinek hil zituen, zein baserritakoak ziren eta falangistak zirela. Gazteak Santanderretik ihesi zihoazten Bilbora bidean eta bertan Frantziarako ontzia hartu behar omen zuten. Falangistak haien atzetik atera ziren, harrapatu eta hil zituzten.

Astobaten

gainean eraman omen zituzten herrira manta batekin tapatuak, baina herriko gazte eta haur guztiak ikusi zuten. Talledon hilobiratu zituzten eta bietako batek bota alandre batekin lotua zuela aipatu zuten. Testigantza oso argia da.

## Nola joan zen hilobi ateratzea?

Lurra kentzen hasi ziren eta gutxira aurkitu zituzten. Ez zegoen sakonera handirik, ez zuten zulorik ere egin. Bertan zeuden bi gorputzak botata eta begiratzen hasita, alandre ere aurkitu zuten.

Esan behar da loreak ere aurkitu zirela, beraz egia zen maistra hura haurrekin joaten zela bertara.

9:00etatik 18:00ak arte egon ginen bertan. 18:30ak aldera guztia hartu eta Aranzadira ekarri genituen.

## Nola bizi zenuen?

Hara joan nintzanean jasango nuela uste nuen. Baina han bihotzak jauzi bat eman eta hau zer da galdetzen diozu zeure buruari.

Pentsatzen hasten zara eta subkontzientea bueltaka hasten da. Nik amonarekin lo egiten nuen gaztetan eta amona gaixoak gauero osabaren eta beste hainbat pertsonaren alde egiten zuten otoitz. Eta pentsatzen hasten zara zein gogorra izan behar zuen amonarentzat ez jakitea non zegoen bere semea eta ezin gertu lurperatzea ere.

Gainera, joateko gineanean gizon bat gerturatu zitzaidan

besarkada eta bi muxu eman eta “lasai hilko naiz orain. Ez nuen hau kontatu gabe hil”. Haurra zen dena gertatu zenean eta guztia ikusi zuen.

## Aitonarekin zer gertatu zen ere argitu zenuen...

Bai, horrela da. Urte batzuk beranduago Aranzadikoek aitona berri zutela aipatu zidaten.

Nik Upo-mendi ontziari buruz irakurria nuen zer bait, baina ez nekien ziur zer zen. Ez nekien ontzi bat zela, Galiziara eraman zituztela eta bertan gosez hil zirela.

Amonari Andoaingo ezaugun batek lagundu nahi izan zion dirua eman eta bertara joateko, baina guztia zuenean eskutitz bat iritsi zen aitona hil zela esanez.

Asko harritu nintzen aitona salatu zuen pertsona Oriakoa zela jakitean eta ondoan bizi zela. Dagoeneko hil da pertsona hori eta eskerrak, izan ere, datuak atera eta gero ez litzaiteke oso atsegina izango berarentzat horrelako erantzukizuna onartzea.

## Zer gertatu zen gorpuarekin?

Amonak ezin izan zuen gorpu ekarri ez zutelako ez dirurik, ezta baimenik ere.

Han dago lurperatua. Ezin dugu ezer egin, argian ez dago ezer. Baina egunen batean bertara joan nahiko nuke non dagoen ziur jakiteko.

## Garrantzitsua da iragana ezagutzea beraz...

Nik beti esan dut ezin dela ahaztu, ezin da mendekua bilatu, ez da beldurrik eduki behar, bestela ez dugu historiariak eta historiariak ez bada- go ez daukagu herririk.

Zer gertatu zen jakitea, familiak erbestetik etorri zirela. Amona eta beste hainbat emakume etorri ziren. Orian berriro zerotik hasi behar izan zuten. Ez zuten ezer eta lanean hasi ziren. Oriako emakumeek astakiloen antzera lan egin zuten eta garatze handia izan duen auzoa izan da.

Badakit garai hartan jazotakoak gehiago dakien jendea dagoela eta pena da ez hitz egitea.

Bestalde, herritarrei gonbita egin nahi nieke senideei buruzko berriak ez badute Aranzadira hurbildu eta galdetzea. Lan handia egiten ari dira eta informazio dextente dute.

